

**EUSKAL OSASUN ZERBITZUA**

456/2014 EBAZPENA, apirilaren 10koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Joseba Koldo Mezcuta Echaurren jauna Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako Zuzendari lanpostua betetzeko izendatzen da.

Aztertu dugu Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako Zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urtarrilaren 31ko 167/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko otsailaren 27ko EHAA (40. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarra aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Joseba Koldo Mezcuta Echaurren jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau


**EBATZI DU:**

Lehenengoa.- Joseba Koldo Mezcuta Echaurren jauna Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako Zuzendaria izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, a 2014ko apirilean 10ean

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA****JON ETXEBERRIA CRUZ**

Osakidetza  
ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRECTOR GENERAL